"orixe"ri gorasarre

ORIXE



EZTAIONDO

UITZI



Euskal Herriko giroa erruz ari da aldatzen; eta gaur Nikolas Ormaetxeari buruz iritzi bat emateak ez dirudi harrokeria. Orain dala urte batzuk —hamabost bat, eman dezagun— Orixeren alde hitzegin zitekean; baina ez Orixeri buruz. Ez, areago, Orixeren kontra. Orixeren balioa zalantzan jartze hutsa aski zan euskaltzale askoren eskomiku guziak biltzeko. Literaturan ere (eta ez politikan bakarrik) ba omen genuen betirako Maisu bat: Nikolas Ormaetxea «Orixe».

Irakurgarria da, honi buruz, Aita Mokoroa'k «Genio y Lengua» dalakoan diona. Nekez egin diteke goratzapen haundiagorik liburu bati buruz. Hogeita hamasei orrialdetan barrena, behar genuen Ebanjelioa eman berri zaigula sinistarazten saiatzen zaigu «Ibar»: «El pueblo vasco puede aún salvarse» (230). Eta, beti ere «Euskaldunak» poemari buruz, beste laudorio askoren artean hau dio: «Por disposición providencial de Dios, ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales, el cual, de la abundancia de su propia vida, pletóricamente vasca, acaba de plasmar la figura viva de nuestro genio» (193); «en el poema Euskaldunak de Orixe tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su regeneración» (194); «una vez dueño el renacentismo vasco de este resorte, tiene ya en su mano la clave de nuestra civilización y, con ella, la suerte futuro de la nacionalidad» (195); «es la representación de nuestro pueblo» (198); eta abar. (1) Xehekiago aztertu nahi duen irakurleak, «Genio y Lengua» irakur beza: 193-230 orrialdeak).

Gerra ondoren are Zaitegi bere adiskide minaren iritzia ez da hotzagoa: «Euzkadi-k dagoeneko ba du bere poema nagusia... non--naiko eta noiz-naiko poema bikaiñenak bezin bikaiña». (2) Ikus Euzko Gogoa, 1950 - 7/8 - 8 gn. h.). Eta hau dio: «Gure herri osoa poema ortan dugu».

K. Mitxelenak berak giro horren eragina erakusten du «Historia de la Literatura Vasca» dalakoan, ondoko hau idatzi duelarik: «El es en varios aspectos el autor más importante de toda la literatura vasca» (148); eta «su conocimiento de la lengua y la destreza con que ha sabido manejarla no necesitan ponderaciones» (149).

Ni neu ere giro hori oraindik nagusi zalarik hasi nintzan euskal literaturaz arduratzen; eta Bilbaon ikasle nengoelarik, «Kito'n arrebarekin» artikulu-saila aztertu izan dut gogotik nere adiskideekin, nahiz gaia —mistika gorabeherak eskuarki— ez oso gure gogokoa izan. Bainan euskeraz ikasi nahi genuen eta, hoberik ez zegoelakoan, Orixeren izkribuetara jotzen genuen: «Kito'n arrebarekin», «Barne Muiñetan» eta «Euskaldunak».

Ezari-ezarian, halere, Orixeren maisutasuna epeldu egin zan gugan; eta hiruzpalau urtetan deuseztatu ere bai. 1955 orduko, eta Zaitegi eta Orixe Euskal Herrira bihurtu orduko beraz, aurkako jokera nabarmen bat agertua zan euskaltzale berri ginan batzuen artean. Nola horrela?

Belaun berriaren ukaera hori aztertzeko eta ulertarazteko asmoa dut nere artikulu huntan.

ORIXE GIZONAZ BI HITZ

Orixeren lanak ezagutzen genituen, ez Nikolas Ormaetxea bera. Hau Guatemalatik 66 urtetan etortzean, beraz, euskaltzaleen gidari famatua buruz-buru ezagutzeko aukera izan genuen. Eta ni neu bederen, areago finkatu nintzan lehenagoko nere susmoetan: Orixe ez zan, nere ustez, euskal intelektualentzako buruzagi egoki bat, eta ez gutxiagorik ere.

Barka bizait irakurleak xehetasun pare bat ematea; uste baitut oso argitsu izan dakizkiokeala.

Operatu berria zan Orixe Donostian, Ategorrietako klinika batean; eta ikustamen bat egitera joan gintzakion nere emaztea eta biok. Sartu gera, agurtu dugu; eta... noski, guk euskeraz. Orixek behin eta berriz erderaz erantzun! Ezin sinistuzkoa! Lotsaturik eta amorraturik (adin-diferentzia, klinika-giroa eta eriaren maisutasuna gogoan hartu besterik ez ditu irakurleak behar) halako batez, eta odola zirakidala, hau esan nion: «Adi zazu, Orixe: euskeraz ere badakigu». Orixek ez zuen nere ziria ulertu ere egin; eta ez zuen ezer funtsezkorik erantzun. Eta ikustaldia bukatu arte emazteak eta nik biok euskeraz, eta Orixek ekin eta ekin erdera hutsez! Gela hartatik zer umoretan eta iritzitan irten ginan azaldu beharrik ez dago, nik uste.

Oso gertaera xumea izanagatik ere, susmo berberak idaroki zizkidan Leitzeko pasadizu txiki batek. 1957ko Abendua zan, eta Leitzera bilduak ginan euskaltzaleok: euskaltzain egiten zuten Orixe egun hartan. Honen euskal hitzaldia hasi da. Aretoa gaiñezka, eta zarata han eta hemen. Atzekaldetik ezin entzun, itxuraz. «¿Qué? ¿No se oye ahí atrás?», Orixek goratik galde... Entzule guziok, esan beharrik ez, euskaldunak, euskaltzaleak (gure artean ipartar euskaldun talde bat, Labeguérie-rekin etorria, esate baterako); eta Orixe Euskaltzaindira sarrerakoan, Leitzen, ez Tudelan. Holakorik? Txundituta ni, zurtuta; eta ni bezela beste anitz, danak agian.

Geroztik Euskaltzaindiko bileretara etorri ohi zan (ez danetara). Asko eta askotan, biltzar aurrean eta ondoan, Orixe barra-barra entzun izan dut erderaz; eta euskeraz oso bakanka. Euskeraz ederki zekien, ordea. Zertan zetzan, beraz, funtsezko erdaltzaletasun bitxi hura? Azalpen bat ematen saatuko naiz.

Nik ezagutu nuen Orixe gizonaz, bukatzeko, beste oroitzapen nagusi bat: berritasunari gorroto. Orain-dik ere ongi gogoratzen naiz Ategorrietako gure ikustamenaz: ni etsistentzialismotik bertan sumaturik, nunbait, filosofia horren kontra mintzatu zitzaidan gogor, eta erderaz, esan dudan bezela.

Egiazko Ormaetxea eta izkribuetako Orixe bi pertsona zirala ikusi uste nuen. Ondoko azterketak ondorio beretara eramango ditu irakurleak, nere ustez.

(3) Alderantziz gauza bera gertatu bide zan: Orixek ez ninduen batere gogoko. Eta orain dala hamar bat urte, gutun agiri eta luze bat idatzi zuen Orixek, eta euskaltzaleen artean zabaldu, Villasanteren eta nere kontra hitzeginez, eta euskerari buruzko gure joera kondenatuz.

ORIXE ETA GAURKOTASUNA

Mitxelenak egoki dio: «poco amigo de lo moderno» (148), «de la misma renuncia de Orixe a ser un hombre moderno, murado por las modas y preocupaciones del momento» (150). (4) Ikus «Historia de la Literatura Vasca», 148--150 orrialdeak.

Orixek bizi-maila guzietan uko egin zien munduari eta gaurkotasunari. Orixe mistiko bat zan, bai; askotan esana da. Baina Orixe danetan zan mistiko: bere Euskadi ez da mundutarrago bere Jainkoa baino; eta bere Espuru mendia «Tabor» bihurtzen bazan, Aralar, Euskal Herri eta mundua osoki beste zerbait bihurtzen zitzaion bezela bihurtzen zan. Orixe ez bide zan gure munduan bizi. Bere Euskal Herria ez zan gurea, bere mistikari eusteko izpirituarentzako bazter urrun bat baizik. Mundutik at zegoen Orixe bere idaz-lanetan; munduari eta munduko Euskal Herriari egiten zien ezespena guztizkoa zan. Mistikotasun hau beti aurrean izan gabe, ez dago Orixe ulertzerik, nere ustez. Jesuita zazpi urtez egon bazan Orixe, kartujo izatekotan ez dakit nik inoiz komentutik irtengo ote zan.

Himalaya-ko eremuetako bontzoak bezelatsu, Orixe munduaren kontra eta at zegoen errotik. Sentidu hontan egiazko Euskal Herriaren kontra ere bazegoen. Alderdiarekin Orixek izan zituen hartu-emanak, gonbarazio baterako, ez izan beti uste dugun bezin legunak izan, Orixek ez baitzuen «politika»n sartu nahi: «Ni ez naiz Alderdiko, ez Euzko Gaztedi-ko, ez iñongo politikako; baiñan bai euskaltzale, bai abertzale ere... Zertako ez duzu, beraz, esango didazu, "Euskadi" erabiltzen? Matxinada aurrean ez nun erabili, politika zelako». (5) Ikus E.G. - 1951 - 3/4 - 35 gn. h.).

Ukaera hortan Euskal Herriari berari uko egiten ziola ikusi uste dut nik; Orixe eskuindarrago baitzan Alderdia baiño, eta euskaltzaleago ere bai. Orixek, benetan, ez zuen «politikarik» egin nahi; eta, hori dala bide, agintariena onartzen zuen. Nola proposa dakiguke intelektual eredutzat gure herriaren politikan bere burua nahastu edo zikindu nahi ez duen intelektual bat? Garai hartako ideiei buruz orain deusik esan ez arren, zer pentsa zezateken Orixeri buruz Estatutoaren alde buru-belarri saiatzen ziran abertzaleek? Nondik nora izan diteke eredu, herriaren kezkez eta beharrez berariaz berezten dan idazlea? Nondik nora izan dakiguke onuragarri hizkuntza eta askatasuna alkargandik urruntzea, edo-ta etsaitzea? Gauza bat da herriaren joera hau edo hura zorrozki aztertzea, are kondenatzea ere; eta beste gauza bat, euskaltzaletasunezko sasi-mistikagintzan, herriaren burrukari jaramonik ez, eta ametsetako lilura belasketara biltzea.

Bestetaik ere alegiazko mundu hortan bizitzeko bere joera hori froga diteke. (Eta, bidenabar desadan, bi gauza dira, nere ustez, poesia eta munduari uko egitea). Europako ideia-korronte guzietatik at zegoen Orixe.

Orixek aski zituen Platon, Aristoteles eta San Tomas; eta hau ez du diximulatu ere egiten. Marxismoa, psikoanalisia, etsistentzialismoa, deus ez dira bere ustez. Gauza bera olerkiaz: «Ez Machado-tarrik, ez Juan Ramón Jiménez, ez García Lorca, ez nitun nik ordu artan ezagutzen. Orain izenez, ez irakurriz... Ez gendun liburutegirik, literaturazkorik beintzat... Irakurtzeko betarik eta amorraziorik ere ez». (6) Lizardi-Saria Tolosan jasotzerakoan esana, 1961-eko Maiatzaren 28-ko hitzaldian. Xehetasun interesgarriak ematen ditu. Ikus Olerti, 1963 - 1/2 - 109.

Croce, Hegel, Zubiri, Heidegger, aipatzen ditu batzutan. Baina «klasiko» egoten da Orixe.

Nahiz euskaltzale porrokatua izan —eta hizkuntza-arazoaz arduraturik— Orixek ez du erakusten hizkuntza-jakinduriari buruzko kezka bizirik, ez ezagutzarik ere: estrukturalismoaren mugimendutik at dago arras. (7) Ibar-ek halere ba zekien Sausurre-ren berri. Fetxa batzuk ematea on izango da. Saussure 1913an hil zan; 1938an Trubetzkoi; Hjemeslev-ek 1935ean ezagutarazi zuen bere Glosematika; Sapir-en «Language» 1921ean agertu zan; eta Bloomfield-ena 1933an; ideia-mugimendua hasia zan. Croce ezagutu arren, bestalde, Orixek ez zuen erreparatu italiar filosofoaren balioa hizkuntzari dagokionez.

Gauza bera erlijioari buruz; gure mendeko arazo larriek ez bide zuten ikutu ere egin. Bere erlijioa haragi-gabe egon zan, lur-gabe, gizadi-gabe, eta mistikazko iruditzapen huts. Ez hezur-mamitan oratua.

Sartre-ri buruzko bere irizkera oso tipikoa iruditzen zait. (8) Ikus E.G., 1954 - 3/4 - 66. Sartre «dohakade bat» iruditzen zaio; honen «azken liburua... ezur zulubita, nik uste, barnean muiñik gabe... liburu kaxkarra nik irakurri ori». Sartre «bere buruaren iainkotxo izan diteke ta bere lege... Nolabaiteko pilosopu orrek ele-ederrera lo omen du —ele-itsusira esan— iñon diran ustelkeriak gertalekurako idatziz»... Eta kito. Hori da dana.

Gogoangarri zait ere Orixek sexo-kontuei zien gorroto osoa. «Euskaldunak» poema irakurri duenak badaki Mikel eta Garaziren artean dagoen sendimendua gizatarra ez dala, haizezkoa baizik. Hau eginez, gainera, alde batetik gure baserritarren egiazko girotik urrundu zan Orixe. (9) Aldera bitza irakurleak, esate baterako, Orixeren «Artazuriketa», 61-95 horr.; eta Mogel-Arrueren «Artazuritze»koan, «Baserritar Nekazarientzako Eskola» dalakoan, 84-85 orrialdeak. Bi munduz ari bide dira gure bi idazleak: batak aingeruak ikusten dituen egokieran, besteak haragikeria eta ifernuko etsaia besterik ez du ikusten. Bestetik Orixek faltsutu egin zuen euskaldunen maitakera, osotara abstrakto eta gezurrezko eginik. Halere, eta jakina danez, Lizardik bultzatu zuen amodio pittin hori bera poeman sartzera; eta, jakina danez ere, Andoni Labaienek ere bultzatu zuen hildo beretik, bi maitaleen izenak proposatuz. Halaz ere Orixeri damutu egin zitzaion gero hortan amor-emana: «Obe nuen nere gisa egin banu... zaiñak auldu besterik ez nion egin oiekin... euskera galtzen ari da, euskera galtzen ari da. Bizi dedilla liburuetan bederen, antzelan bikaiñetan; ez, ordea, ipui-berri nabarmenetan, ez satsukeritan». (10) E.G., 1954 - 5/8 - 102. Euskaldun izan nahi omen du hortan; baiña Etxepare, gure lehenengo idazlea, euskalduna zan ere, eta apaiza batera; eta ez zuen herabetasunik batere erakutsi gai hortaz argi eta garbi idazteko. Europako literatura guzia maitasun arazoetan zabaltzen ari zan adiuntzan (beharrik!), Orixek areago hestutu nahi zuen gurea. Berriz ere munduari uko.

ORIXEREN EUSKAL HERRIA

Gauza agiria da Orixeren Euskal Herria eta guk ezagutzen duguna bi gauza desberdin dirala. Zaitegik berak sumatu bide zuen hau; eta «Euskaldunak» poemaren kritika egitean, Orixek «atzoko» Euskal Herriaz diharduela dio.

Egiatik hurbil xamar dago Zaitegi. Baina egia hauxe izan diteke, nik uste: Orixeren Euskal Herria mistikoa dala, ALEGIAZKOA, eta EZ EGIAZKOA. Nafarroako herriska txiki-txikietan aurkitu uste du Orixek. Kalea gorroto du. Industria aipatu ere ez du egiten bere izkribuetan. Gaurkotasunik ez da inon agiri. «Atzokoa» ez, beraz: Erromatarren garaikoa gutxienez.

Ezta hori ere, ordea. Aski da gure baserritarrei buruz soziologia piska bat egitea, edo Ameriketarako joaira aztertzea, edo Campionen «Euskarianas» irakurtzea, Orixek begietaratzen diguna baserri--giroa inondik ere ez dala jakin dezagun.

Orixeren «Euskal Herri» hori, hitz batez, ez da inoiz izan. Eta hori ez da poesia-bidea, nere ustez, alienazioa baizik. Egiazko poesiak egia barruragoraino agerrarazten du hain zuzen, eta ez izkutatzen.

«Euskaldunak» poema «apoteosis del jebismo» bataiatu zuen behin Kruttwig'ek. Esakun zorrotza. Ez dakit nik hau berau egia osoa ote dan. «Euskaldunak» giharrik gabeko eta gizatasunik gabeko sasi--baserritarren ipuina da. Eta ipuina esanez, zentzurik txarrenean hartzen dut hitza. Jende hori jostaketan ari bide da liburuan zehar, haunditasunik gabe, grinarik gabe, zainik gabe. «Euskaldunak» odol--gabetuen diorama izan diteke; euskaldun anemikuen pasadizu-sorta g e x a. «Euskaldunak» euskaldun irenduen poema da.

Gure herriak Zumalakarregi eman du, eta Espoz-Mina, eta Harispe, eta Lope-Agirre, eta Salazar, eta Bolibar, eta Dolores Ibarruri, eta Loiola eta Xabier, eta Elkano, eta Santakruz, eta Garat, eta Moniko Azpilikueta, eta Gaiarre, eta Unamuno, eta Arana Goiri, eta Saseta, eta Arrizabalaga. Ez dakit nik nondik nora izan ditekean «Euskaldunak» «gure» poema. Nazio-jarraigarri zertan izan dakigukean ere ez.

Orixek hau dio, ordea: «Euskalerri osoa dut kanta-gai... Euskalerria nire agoz mintzatu izatea nai nuke». (12) Euskaldunak, 8-9. Nola uler hau? Nere ustez ez dago azalpen bat baizik: Orixeren «Euskalerria» eta gure Euskal Herria, ametsa eta egia dauden alkar-hein berean daude. «Euskalerri» hori mistika-bide zan Orixeren kaskoan.

ORIXE EUSKALTZALE

Orixe euskaltzalea zala ukatzea zentzugabekeria litzake: Orixek bere bizi osoa eman zuen euskeraren aldeko lanetan, orain arte gutxik egin duena. Itzultzalle gisa

"orixe"ri gorasarre



BELAR GOXO TARTEAN, EPER-KABI

AKELARRE BELTZ

liburu-mordo bat euskeratu zuen: «Tormes'ko Itsu-mutilla» (bizkaierara, *bere itzulpenik onena beharbada*). «Urte Guziko Meza-bezperak», San Agustin'en «Aitorkizunak», Mistral-en «Mireio», «Salmutegia», eta abar.

Horrez gainera, anitz olerki eta artikulu argitara zituen euskal aldizkari guzietan (euskeraz gehienak). 1950etik aurrera, Zaitegirekin batera, «Euzko Gogoa» aldizkaria atera zuen aurrera, hortarako Guatemalara aldatuz. Dana dala, bertsotan «Barne Muiñetan» eta «Euskaldunak» dira bere bi lan nagusiak; eta «Kito'n arrebarekin» saila hitz-lauz. Beste gai batzuk ikutu zituen ere, euskal gramatika barne.

Batez beste, zein da lan gaitz horren joera nagusia? Euskaltzale haundi baten aurrean gaudela aitortu ondoren, nolako euskaltzalea zan Orixe?

Dagoeneko zerbait esanik dago. Goazen aurrerago.

Gaur Orixeren iritzi batzuk gauza ageria iruditzen bazaizkigu ere, bere garaian aurrerako urrats haundia ziran, eta harrigarri gertatzen. 1920-1930eko girora aldatzen saiatu behar dugu. Euskaltzaindiko biltzarrak erderaz egiten omen ziran 1936-arte, Olabide, Urkixo, Canpion bera, eta beste euskaltzain batzuk, gauza ez baitziran euskeraz mintzatzeko (!). Euskaltzainen arteko gutunak gehienetan erderazkoak ziran. (12) Euskaltzaindiaren «Euskera»-sorta hausnartzea dauka irakurleak. Alderdiko euskaldun puntuzko askoren seme-alabek euskeraz ez dakite, beren etxeetan erdera baitzan hizkuntza bakarra. Hori zan, bai, orain guztiz erdaldun eta onartu-eziña iruditzen zaigun giro kiratsa. Euskal Herriko arroztea azken hondoraino joana baitzan.

Mami guzia españeraz, xinplekeriak euskeraz, gauza inportanteak erderaz: horra hor orduko legea.

Pizkunde-hasiera hartako abertzaletasuna Alderdi barruan erdaldun hutsa izan zala neuk berriz salatzea, nere lelo ezagun bati ekitea lekioke askori. Mintza bekigu Orixe. «El Día» eta «Euzkadi» egunkariak erderazkoak ziran %-eko 99-tan. (14) Orixek berak ematen ditu honi buruz oso berri interesanteak. Ikus E.G., 1950 - 7/8 - «Lizardi Ameriketan» artikulua, 6-7-8 horrialdeak. Euzko Gogoako Zuzendaritza'k —eta Orixe barne, beraz— erdal joera hori salatzen du: «Gurean Jel-Alderdia izan da abertzaletasunaren arrobia, baita euskeraren illobia ere. Ez, noski, asmoz eta jakitez... (baiña) etzun euskera artu alderdiko ele bakartzat... eta erdera izan du ele nagusi». (15) Ikus E.G., 1954 - 5/8 - 74. Orixek berak horri zer zeritzan argi azaldu zuen: «Euskaldun ez dan euskotarrak ez du aski euskotar dala esatea, ezta abertzale dala esatea ere, gure izkuntza ikasten alegiñak egite, ez ba ditu» (16) E.G., 1951 - 1/2 - 12).

Eguneroko mintzabideari dagokionez, beraz, bere garaiko seme izanik ere (= beti erderaz eguneroko bizian), Orixek bat egiten zituen teorian bederen abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna; eta hontan gugandik bertago dago «euzko» guziak baino. Eta «euzko» horiek, noski, ez zioten hori sekula barkatu.

Hala ere, Orixe idazterakoan euskalduna zan, baina Ormaetxea erdalduna. Idazterakoan, eta literatura egiterakoan, euskeraz mintzo; hitzegiterakoan erderaz. Axala ez besterik euskalduna bailuan! «Euskalerria» han dago, urruti, Tabor mendia bezin urrun, denetatik at eta lekorean, Euskal Herritik beretik berex, Ormaetxea gizonagandik beragandik a n i t z kilometrotara. Orixe Aralarko etnografilaria bide da, Frazer-en anaia. Exotismoaren iturria, ordea, Uitzin bertan aurkitu bide zuen. Orixe Euskal Herriaren ikusle bat da; eta ikusle gisa, KANPOTIK ikusi zuen. Aralarko indioen espezialista zan. Indioekin eta indioei buruz BEREN hizkuntzaz. Indioekin ez besterekin hori. Hau bide da xedea.

Horrela jokatuz Euskal Herriko alienatu-ilaran sartu zuen bere burua; eta indio ikasiaren jokoa besterik ez zuen berritu euskaldunei buruz: itzultzailearena. BESTEEN *mundua ezagutarazi*. *Hortara* Orixek, Truebak, Olorizek, eta beste milak bezela, ez zuen BERE BIZIAN NORTU, munduari buruzko ihespide bihurtu baizik. Orixe kondenatzean, beraz, gure aurrekoen «indiokeria» kondenatu nahi dugu: gu ez gera Ahuñemendiko azken indio bitxi, basati eta dantzariak. Euskal Herria geu gera, danok, baserritarrak eta kaletarrok, burgesak eta langileok, traidoreak eta abertzaleok, Aralarko mendikoak eta Nervion-hegletakoak, Donapaleukoak eta Amurriokoak. Euskera ez da Espuru ondoko hizkera, geure eguneroko mintzabidea baizik. Esan beharrik ote dago oraindik?

Gure irizkera huntatik bertago zegoen, halere, Orixe, bere garaikoak baino. Ez zuen, halaz ere, pausu erdi bat baizik eman.

ORIXE HITZ-BILTZAILE

Orixe, nere ustez, folklore-biltzaile gisa saiatu zan hiztegiari dagokionez. Hiztegi-kontuan, beraz, Orixek lan eskerga egin zuen, eta fidatzekoa iruditzen zait bere ekarria. Orixe —ez dugu ahaztu behar— euskaldun hutsa zan hizkuntzaz. Haurtzaroa eta gaztaroa, 20 urte izan arte, Orexako eta Uitziko baserri-lanetan eta baserritarren artean pasa zituen. Euskaldun sena bazuen dudarik gabe. Hori dala-ta, jesuita ikastekotan Xabierko komentura sartu zanean, «doi-doi mintzatzen zan erderaz», Andoni Labaienek dionez. (17) Ikus Euskera, 1961, 346. Horrez gainera, eta mundu modernoari zion gorrotoak ere eraginik, hil arte saiatu zan Orixe baserritarrengandik gure hizkuntza ikasten. Hil aurretixek hau zion Tolosan, Lizardi-Saria hartzerakoan: «oraindik ikasten ari naiz». (17) Olerti, 1963, 111 gn. h. Ikasi-nahi bizi hortan euskaldun herri xehea izan zuen Orixek irakasle: «baserritarrak izan ditut irakasle, nerau ere ala naizela». (18) E.G., 1951 - 3/4 - 36 gn. h. Baserritarren ikaspide hau, kontutan har dezagun, askoz emankorragoa zan, jakina, 1900ean eta 1920an, 1969an baino.

Hitz kontuetan, beraz, ikastekorik asko dago Orixeren lanetan. Puntu huntan, eta bere ideiak eskuindarrak zirala bide, bildur naiz ni Orixe gazteriak behar baino areago zokora dezan. HITZ-kontuan, berriz diot, ikastekorik asko dugu danok Orixerengan. Gauza bera joskeraz eta beste zenbait puntutan.

Orixe, bestalde, folklore-biltzaile zalako, errespetua erakusten zuen biltzen zituen mintzaira-dokumentuekiko. Hontan Barandiaranen ezpalekoa zan; eta Alderdiko euskaltzaleengandik oso oso urruti zegoen. Garbizale izanik ere (nor ez urte haietan?) Alderdikoen arabera Orixek mordoilozale dirudi, Sebero Altubek bezela. Martxoa, Apirrilla, mundua, eliza, kanta, saiatu, aldare, dijiritu, inpernu, zeru, eta jelkideek gaitzesten zituzten beste mila holako, Orixek lotsarik gabe erabiltzen zituen. Ikus «Euskaldunak» bera, esate baterako.

Bere garaiko joeraren kontra, eta Sabin Arana-Goiriren kontra ere, Euskadi eta euskera proposatu zituen behin eta berriz Euzkadi eta euzkeraren kontra, gazteria gaztedi-ren kontra, eta abar. (19) Ikus honi buruz, E.G., 1951 - 3/4 - 36.

ORIXE HIZKUNTZA-MAISU?

Hiztegi-kontuan, hitzen egokitasunean, adjetiboen xuxentasunean, joskeran, esaldietan, Orixeren izkribuetan erruz ikas ditekean bezela, gainerakoan Orixe eredutzat ezin har ditekeala esan beharra dago nere ustez. Tomismoak Orixerengan erein zuen logikakeriak hondatu egin zuen bere hizkera. Hau nabarmena da aditza edo berboari buruz; baina baita beste puntu askotan ere. Orixe gramatikalaria aldaketatan abiatu ezkero, eta Orixe euskaldunari nagusitu bezin laister, akabo! Euskal gramatikari buruz, eta funtsezko euskal kera eta estrukturei buruz, Orixe berezi egin zan gure herriaren hizkuntzatik eta literatura zaharretik, eta egiazko ebakidura galgarri bat egin zuen.

Huts hori larria da oso. Hona hemen Mitxelenaren iritzia etendura *horiei buruz*: «*Todavía* resulta más grave su tendencia —Arana-Goiriri buruz ari da— acentuada en algunos de sus discípulos, a innovar en la gramática siempre que la "lógica" parecía exigirlo». (20) Historia de la Literatura Vasca. (144) Hots, akats hórixe hain zuzen —gramatika beharrik batere gabe aldatzea— bete-betean aurkitzen da Orixerengan.

Aipa ditzagun puntu bakar batzuk:

1) «-TU» eta «-I» sufijoak (partizipioenak, alegia) latineratik datozelakoan omen, bihozkadak ematen zion arabera kentzen zituen Orixek: ez beti, ez behar bezela, ez euskal gunari atxikiz, erregelarik batere gabe. Bere jarraitzaileek berdin egin dute. Har dezagun «Euskaldunak», esate baterako. Hauek irakur ditzakegu berealatik: ken zioten neska (62), ager du muturra (64), sar diot (65), senda nai dunari (68), lardaska ditutze (81), zulorik ez da ager (80), asma ziran danak (87), agin zion (87), arki dute senargai (89), eska ditio (291), itzul diote (441), ekar dut (554), eta abar, eta abar. Kakoa aditzaren ekintza GERTATUA ALA GERTAKIZUN izatean datzalarik ere, Orixek ez bide daki. Ez du halere beti hortara jokatzen: bialdu digu (291), lertu zaio galtza (83), etorri da amatxi (83), eta abar.

Ez da xuxena bertsogintza dala horren giltzarria: izkribu guzietan gauza bera da. Bere «gerta oi da» eta «gerta oi dira» zoritxarreko horiek sartu ere egin dira ezjakinen artean; eta ekar du, eror ziran, eta abar, edozein *izkributan irakur* ditezke. Baina, itzuletara, euskeraren bidetik berezi zan ekintza eginkizun dan formetan: mindu ez dezaten (83), egurastu lezake (83), ez dezake josi (83), artu dezan (93), ez bekit mututu (Lizardi-Sari-koan), eta beste hamaikatan, partizipioaren ordez berbo-soila erabili behar danean -TU eta -I erasten ditu. Nekez proposa diteke nahasketa hori euskal eredutzat: gure berboa zeharo hondatzea eta erdalduntzea litzake.

2) -A artikuluari buruz gauza bertsua. Orixeren deklinabidea eskuarki zuzena izanik ere (eta hontan ere bere garaiko gehienak baino euskaldunago agertzen, Otsobi eta beste ipartarrak kendu ezkero) artikuluari zion gorrotoak ez du euskal funtsik. Era berean -A itsatsia, artikulutzat harturik, kendu egiten zuen: arnas, neskatx, txorakeri, ego, eta abar. (Huntan bere eskualdeko akats bat hartu zuen eredutzat).

3) «Zu» gaur singular dala-ta (=usted, españeraz; baiña vous, frantsesez ez da singularra... berriz ere Orixek Gaztela neurri!) berbo osoa aldatu zuen, gaztelaniaz plural-kin ez dituen modura jarriz. Segidan gauza bera egin zuen «gu»rekin. Bere «logika» gidari berboa zeharo hondatu zuen liburu guzietan («Tormes» ezik, oker ez banago); eta gakio, zakio, gintzaion, zintzaidan, gakioke, eta sekula erabili ez diran beste anitz asmatu eta erabili zuen, genuen nahasketa larriago eginez. Hots, puntu hortan hitz berririk ez genuen behar, gatzazkio, zatzazkio, gintzazkion, eta abar (edo beren kideak) aditz-joko zaharrak baitira, eta Euskal Herri guzian hedatuak. Arlo hontan Orixe osoki kaltegarritzat jotzen dut.

4) Literatura guzian barrena, eta erderaren kontra, indeterminazioak singularra behar izan du berboan: zenbaitek ekarri du, askori esan diot, eta abar. Bertsolariak aztertzea besterik ez dago hori arkaismo bat ez dala egiaztatzeko. Hots Orixe, ERDERAREN GRAMATIKA eta estrukturak LOGIKATZAT harturik (eta euskal taiukera ukatuz) erderaren arabera erabili ditu hauek: «zenbait oitura ar itzazu» (554), zenbaitek esan didate (E.G., 1950-2), zenbait lerro irakurri nituen (d°), deabru asko aterarazi zituela (E.G., 1951 - 3/4), eta abar.

5) Orixek batasunaren kezka bazuen: «Ez da guzien euskera, guzien euskerarik ez baita. Izan balitza, ua emanen nizun». (21) Euskaldunak, Hitzaurrean, 10. Batasunerako bidean, Azkuek eta beste askok bezela, gipuzkera hartu zuen oinarritzat. Aurrerago ere jo bide zuen bolada batez; eta Salmutegiara joatean H-batzukin idatzi zituen hiru olerki. (22) Ikus E.G., 150 - 2 - 3 eta 4 gn. h. Hauek irakur ditezke: huntan, hurrun, hegatsetan, haren, ilhun, hau, hondarra, hasi, hain, behar, eta beste anitz; baina baita, bertso horietan beretan, aragi, iru, len, emen, otz, il, ark, aiz, an, ego, eta abar. Ez bide zuen, beraz, batasunerako jokabide garbi bat hautatu. H-ak osotara utzi zituen azken lanetan (batasuna «español» modura bilatuz), ipartarrak euskaldunak ez balira bezela. Aspaldiko joera zuen hau: «Euskaldunak» poeman nota asko erderaz (españeraz, hobe) argituak ditu, euskaldunek euskera baino ere lehenago españera ongi ezagutu behar balute bezela, hegotar izan ala ipartar...

6) «Errege» hitza deklinatzean erderara jotzen du Orixe'k, beste edozein bezela hartuz: «erregeri» esan beharrean «erregeari» dio (Tormes, 91), «erregek» esan beharrean «eregeak», eta abar.

«Dula», «ditula», «dun» eta abar hautatuz (eta ez duela, dituela, duen...) Euskal Herriko joera nagusitik berezi zan.

Berrikeria horiek guziak, eta hau ez areago luzatzeko aipatuko ez ditudan beste batzuk, aski dira nere ustez hizkuntzari dagokionez Orixe eredutzat ez hartzeko.

Denek akatsak izanagatik ere, askoz maisuago ikusten ditut nik Gregorio Arrue Duvoisin, Haraneder, Mendiburu, Mogel, eta Atsular batez ere.

ZERTAN EREDU ORIXE?

Erruz ikas diteke Orixeren idaz-lanetan, berriz diot, hiztegi-kontuan, egokitasunean, adjetiboen funtsean, joskeraren jatortasunean, esaldietan, baserrietako ohitura zaharretan, euskal jokoetan. Komeni izango litzake, nere ustez, alderdi hortatik euskaltzale gazteek Orixe aintzakotzat hartzea.

Orixeren akatsak haizatu ondoren, gaurko idazleak baino askoz gorago dagoela esan behar da: batzuen luman ez dago euskal ginar aztarnarik ere! Erdal lotsagabekeria horiek erauzi egin behar dira gugandik. Orixek, baserritarra izan aren, eta euskeraz ongi egiten dan eskualde batekoa, bizi GUZIA pasa zuen euskera ikasten; eta barruan zeraman gramatikalari murritza baserriko semeari nagusitu ez bazitzaion, Orixeren hizkera Atsularenaren parekoa izan zitekean. Orixeren landu-nahia eta euskerari buruz eskolatu-nahia guztiz da txalotu-beharrekoa eta jarraitu-beharrekoa. Gazte batzuen ezjakintasun harroputz eta ausarta guztiz ere gaitzetsi behar da. Ikas aurrenik, eta gero mintza.

Urteak aurrera joan dira, bestalde, Orixeren garaietik; eta geure ikuspuntutik kupidarik gabe epaitzea, eragabekeria litzake. Danok gera zordun Orixeren belaunarekiko.

Beti ikasketan egon ondoren, hau zion Orixek Guatemalan 61 urte zituelarik: «gazteok gu baiño bizkorrago datoz, eta atzean utziko gaituzte». Apaltasun ederra hor ere, bizi guzia euskera osatzen pasa zuen batengan!

Eta euskerarekiko amodioan eredu ere zalantzarik gabe. Langile porrokatua, bere bizia eskaini zuen gure hizkuntzaren jasokuntzan; eta hontan errespetu guzia merezi du. Orixek berak aipatzen zituen maiz «250 irakurleen muga»... Zaila zan giroa gerra-ondo ilun hartan. Zuzen izan gaitezen: Orixeren aroa gurea baino zailagoa zan.

Hunkigarriak dira bere hitz hauek: «Nik etzekiñat oraingo ontan ilgo ote zaigun euskera gaixoa; urbil zegon; baiña ni bizi naizaño iraungo dula uste yunat» (23) E.G., 1954 - 3/4 - 61).

Agintza ederra!

Eta bihotz osoaz azken minutura arte betea.

Baldinba geuk ere horrenbeste egingo!

TXILLARDEGI

Gráficas Navasal - P. Adoain, 1 - Pamplona, España'n egiña - D. L. NA. 50-1965